## BURUXKAREN KONPROMISOA EKOIZLE ALIATUEKIN

Eskerrak eman nahi dizkizugu Buruxka proiektuan ekoizle aliatu gisa batzeko interesegatik, hain zuzen ere galburuen bilketa gizarte- eta ingurumen-balio gisa berreskuratzeko proiektuan. Proiektu hori Deierriko Udalak, ekimenaren koordinatzaile eta buruak, NUPek eta INTIAk sustatu dute, 2014-2020 aldirako Nafarroako Landa Garapenerako Planaren (LGP) laguntzarekin, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsaren bidez ("Europak landa-eremuetan inbertitzen du") eta Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin.

Dakizunez, proiektuarekin bat egiteak esan nahi du lursailetan galburuak biltzeko aukera ematea, uzta bildu ondoren soroan geratzen diren eta merkaturatuko ez diren fruitu eta/edo barazkiak biltzea. Espigamenduak boluntarioen lanari esker egiten dira, eta bildutako produktuak gizarte-erakundeetara bideratzen dira premia duten pertsonei birbanatzeko.

Horren bidez, landa-eremuan izaten diren galerek gizartean eta ingurumenean duten eragina murrizten lagundu nahi dugu, ikusarazi lehen sektorearen garrantzia eta elikagaien balioa, aldaketa-eragileak prestatu sentsibiliza dezaten elikagaien galerei eta xahutzeari buruz, eta sustatu eraldaketarako gizarte-ekonomia.

**Zein konpromiso hartzen du Buruxkak ekoizle aliatuekin?**

Buruxkak konpromisoa hartzen du galburuen bilketak zuretzat **errazen** izango diren moduan egiteko, zure ordutegietara eta zure esanetara egokituz, aparteko lanik ez eragiteko eta zure lanaldian eta soroetan ahalik eta inpaktu txikiena izateko.

Buruxka espigamenduaren antolaketaz eta logistikaz arduratuko da, eta bermatuko du ekoizleari **ez diola kosturik eragingo**, kutxak, garraioa eta beharrezko tresnak jarriz.

Gainera, **aseguru** batek estaliko ditu bai ekoizlea bai parte

## COMPROMISO DE BURUXKA CON LAS PRODUCCIONES ALIADAS

Te agradecemos el interés en sumarte como producción aliada del proyecto de recuperación del espigamiento como valor social y ambiental Buruxka, promovido por el Ayuntamiento del Valle de Yerri, coordinador y líder de la iniciativa, la UPNA e INTIA, con el apoyo del Plan de Desarrollo Rural - PDR de Navarra 2014-2020, a través del Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural: "Europa invierte en zonas rurales" y el Gobierno de Navarra.

Como sabes, sumarte al proyecto significa permitir la realización de espigamientos en las parcelas y de las frutas y/o hortalizas que nos indiques, de aquellos productos que quedan en el campo después de la cosecha y no van a ser comercializados. Los espigamientos se realizan gracias a la colaboración de personas voluntarias, y los productos recogidos se derivan a entidades sociales para su redistribución a personas necesitadas.

Con ello pretendemos contribuir a reducir el impacto social y ambiental derivado de las pérdidas en campo, visibilizar la importancia del sector primario y el valor de los alimentos y formar agentes de cambio para sensibilizar sobre las pérdidas y el desperdicio alimentario, así como la promoción de una economía social de transformación.

**¿Cuál es el compromiso que adquiere Buruxka con las producciones aliadas?**

Desde Buruxka nos comprometemos a que los espigamientos se realicen de la manera más **sencilla** para ti, adaptándonos a tus horarios y tus indicaciones para evitarte trabajo extra y minimizar el impacto en tu jornada y en tus campos.

Buruxka correrá a cargo de la organización y la logística del espigamiento, garantizando que sea **sin costes** para la producción, poniendo las cajas, el transporte y las herramientas necesarias.

Además, tanto la producción como las personas que participarán estarán cubiertas por un **seguro** y se

Proyecto financiado en el marco de las Ayudas a la submedida 16.2 de apoyo para los proyectos piloto y para el desarrollo de nuevos productos, prácticas, procesos y tecnologías del PDR de Navarra 2014-2020. Convocatoria 2019 (EXP. 21019007)

16.2 azpineurrirako Laguntzen esparruan finantzatua, Nafarroako 2014-2020 Landa Garapeneko Programaren (LGP) barneko "Proiektu pilotuei eta produktu, praktika, prozesu eta teknologia berrien garapenari laguntzea" (EXP. 21019007)

Unión Europea FEADER
Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernua
INTIA
upna

hartuko duten pertsonak ere, eta COVID-19k ez kutsatzeko neurriak betetzen direla bermatuko da.

Buruxka boluntarioak antolatzeaz arduratzen da, eta konpromisoa hartzen du galburuak biltzera joaten direnak behar bezala identifikatuta joan daitezen, ustiategiak errespeta ditzaten eta berriz ere espigamenduaren testuingurutik kanpo ez joateko konpromisoa har dezaten. Era berean, erreferentziazko pertsona bat izendatuko du ekoizleentzat.

Bestalde, kontrakoa esaten ez badiguzu, zure ustiategiaren/enpresaren izena Buruxkaren komunikazio-elementuetan agertuko da (webgunea, prentsa-oharrak, txostenak, etab.), eta proiektuaren gainean informatuta izango zaitugu.

**Galburuen bilketak ahalik eta modurik onenean egin daitezen, eskertzen dizugu** ahalik eta informazio gehien ematea, espigamendua baldintza onenetan egiteko.

Deituko zaitugu kontsultatzeko produktua biltzeko modurik onenaren gainean, honen datu orokorrak eta funtsezko alderdiak ezagutzeko, eta honela transmititu ahal izateko galburuak biltzen parte hartzen dutenei.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkizugu "Nafarroan elikagaien galeren egoeraren Diagnostikoan" parte hartzeagatik, proiektuak egoera hobeto ezagutzeko egiten duen ekarpenetako bat baita.

**COVID-19 ERANSKINA**

Galburuen bilketa horietarako diseinatutako Covid-19 protokoloak osasun-neurri hauek hartzen ditu barne:

- Galburuen bilketa guztiak aire zabalean egingo dira.
- Gehienez ere 6 laguneko lantaldeak izango dira, eta haien arteko distantzia egokia mantenduko dute.
- Proiektuaren teknikariek antolatuko dituzte lantaldeak.
- Parte-hartzaile guztiak txaleko bidez identifikatuko dira.

garantizará el cumplimiento de medidas para evitar el contagio por COVID-19.

Buruxka, se encarga de la organización de las personas voluntarias, comprometiéndonos a que las personas que acudan a los espigamientos vayan debidamente identificadas, respeten las producciones y se comprometan a no acudir de nuevo fuera del contexto del espigamiento. Asimismo designará una persona de referencia para las producciones.

Por otra parte, a no ser que nos indiques lo contrario, nos aseguraremos de que el nombre de tu producción/empresa, forme parte de los elementos de comunicación de Buruxka (web, notas de prensa, Informes, etc.) y te mantendremos informado/a de los avances del proyecto.

**Para garantizar el mejor desarrollo posible de los espigamientos, te agradecemos** que nos des la mayor información posible para llevar a cabo el espigamiento en las mejores condiciones.

Te llamaremos para consultarte datos generales y aspectos fundamentales para la mejor manera de recogida del producto para que podamos transmitirlo a las personas que formarán parte del espigamiento.

Por último, te agradecemos que participes en la elaboración del "Diagnóstico de situación de las pérdidas de alimentos en Navarra", como uno de los aportes del proyecto al mejor conocimiento de la situación.

**ANEXO COVID-19**

El protocolo Covid-19 diseñado para estos espigamientos incluye las siguientes medidas sanitarias:

- Todos los espigamientos se realizarán al aire libre.
- Grupos de trabajo de máximo. 6 personas y guardarán una distancia interpersonal adecuada.
- Los grupos de trabajo serán organizados-as por el equipo técnico del proyecto.
- Todas las personas participantes irán identificadas con chalecos.

Proyecto financiado en el marco de las Ayudas a la submedida 16.2 de apoyo para los proyectos piloto y para el desarrollo de nuevos productos, prácticas, procesos y tecnologías del PDR de Navarra 2014-2020. Convocatoria 2019 (EXP. 21019007)

16.2 azpineurrirako Laguntzen esparruan finantzatua, Nafarroako 2014-2020 Landa Garapeneko Programaren (LGP) barneko "Proiektu pilotuei eta produktu, praktika, prozesu eta teknologia berrien garapenari laguntzea" (EXP. 21019007)

Unión Europea FEADER
Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua
INTIA
upna

- Parte-hartzaile guztiek eskularruak eta maskarak izango dituzte. Maskara nahitaezkoa da jarduera osoan.
- Gel hidroalkoholikoa emango da bilketa bakoitzaren aurretik eta ondotik.
- Materiala desinfektatuko da erabilera bakoitzaren ondoren.
- Pertsonen artean ahalik eta distantziarik handiena izango da erabilitako garraio publikoetan.

Neurri horiek, unean-unean, Nafarroako Gobernuak eskatzen dituen osasun-eskakizunetara egokituko dira. (https://coronavirus.navarra.es/eu/web/coronavirus/aparteko-neurriak)

- Todas las personas participantes irán equipadas con guantes y mascarillas. La mascarilla es obligatoria durante toda la actividad.
- Se proporcionará gel hidroalcohólico antes y después de cada espigamiento.
- El material será desinfectado tras cada uso.
- Los transportes públicos utilizados procurarán la mayor separación con el resto de personas.

Dichas medidas se adecuarán en cada momento a las exigencias sanitarias exigidas por Gobierno de Navarra (https://coronavirus.navarra.es/es/medidas-extraordinarias)

Proyecto financiado en el marco de las Ayudas a la submedida 16.2 de apoyo para los proyectos piloto y para el desarrollo de nuevos productos, prácticas, procesos y tecnologías del PDR de Navarra 2014-2020. Convocatoria 2019 (EXP. 21019007)

16.2 azpineurrirako Laguntzen esparruan finantzatua, Nafarroako 2014-2020 Landa Garapeneko Programaren (LGP) barneko "Proiektu pilotuei eta produktu, praktika, prozesu eta teknologia berrien garapenari laguntzea" (EXP. 21019007)

Unión Europea FEADER
Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030
INTIA
upna